

KOSTUEN EGITURA

Telebista kate bat sortzeko kostu desberdinak kontuan hartu behar dira, oso garestia baita kate bat sortzea. Katea pribatua denez hainbat iturrietatik lortu behar izango ditugu gure irabaziak lortzeko. Hau dena aurrera eramateko inbertsioak handiak izan behar dira katea egiteko eta gero ondo funtzionatu behar du.

Hauek dira kostuak:

- **Ikerketa eta gidoia:**

Elkarrizketak egiteko gidoi bat jarraituko dugu, bertan kirolari horri egingo dizkiogun galderak edukiko ditugu. Gidoilariak beste gauza asko egingo ditu esaterako antolatu, prestatu tertuliak,...

Elkarrizketen gidoia gure langileek egingo dutenez, 28€ egunean ordainduko zaie. Beraz, hilabetean 840€.



- **Ofizina(lokala):**

Lokal bat alokatu beharko dugu gure ekipoa bertan egoteko eta lan egiteko. Lokal horretan gure ofizina, platoa, makillaje taldea...

Lokal handia izan behar du eta horretarako inbertsio handia eta diru asko beharko dugu. Donostiako zentroan dagoen lokal handi bat hartuko dugu, 255m² dituen eta 350.000€-ko balioa duena. Baina oraindik ez dugunez diru asko lortu, ezin izango dugu dena batera ordaindu. Beraz, hilabetero 1.166,68€ ordaindu beharko genituzke 25 urtetan.

- **Arte departamentua(plato):**

Katea erakargarriagoa izateko platoak dekorazio desberdinak izango ditu tenporada bakoitzeko. Gauden tenporadako kirola nagusia izango da gure platoan. Hemengo inbertsioa ez da oso handia izango. Erreformak egiteko gehienez 5.000€ gastatuko dugu (mahaiak, publikoarentzako aulkiak, dekorazioa etab.)

- **Kamara:**

Hasieran diru asko ez dugunez edukiko kamara gutxirekin hasiko gara ondoren dirua irabazi ahala kamara gehiago erosten joango gara. Horta hasierako kostuak ez dira hain handiak izango. Hasieran, hartuko ditugu bi kamara: JVC GY-HM70E Camcorder hombro HD Optica zoom 16x F1.2 Bat platoan erabiltzeko presentatzailearen aurrean, eta beste bat kirolariak grabatzen duena, beraz, 2.200€ ordainduko ditugu. Geroago gehiago hartuko ditugu.

- **Audio-pertsonala:**

Audioa beharrezkoa izango da gure programa grabatzeko, beraz audio ona lortzeko hainbat material erosi beharko genituzke. Partidu guztietan egongo da kamerarekin lotuta mikrofono bat, eta gure programari hasiera emateko musika ere. Partiduen arteko aldaketetan ere jarriko dugu geure logoa grabatuta, tartea dela jakinarazteko.

Hiru solapako mikrofonoak erosi ditugu, eta baita mikrofono handi bat presentatzaileak elkarrizketak egin ahal izateko eta programak presentatzeko. Guztira, 93,98€ gastatuko genituzke mikrofonoetan.

- **Efektu berezi-pertsonala:**

Partiduen aldaketetan jarriko dugu efektu espeziala, ikusleek jakinarazteko partidu horren deskantsua dela, edo partidua bukatu egin dela. Beraz, konfeti makina espezial bat erostea erabaki dugu, eta orduan, 250€ gastatuko dugu.

- **Makillaje pertsonala:**

Gure telebista kateetako programetan ateratzeko beharrezkoa izango da lehenengo makillatzea, eta horretarako, makillatzaile profesional batek makillatuko diete. Beraz, pertsona hau kontratatzean dirua gastatuko dugu. Makillatzailea, makillatzeko kurtsoa egin duen pertsona bat da, beraz ondo formatzeko aukera izango du gurekin la eginez. Bakarrik pertsona bat makillatu behar duenez, makillatzen duen bakoitzeko/30€ ordainduko diogu.

- **Jantzi disenatzailea:**

Ezinbestekoa izango da telebistako programetan azalduko diren aurkezleek jantzi disenatzaile bat edukitzea. Horretarako, diseinatzaile bat kontratatu behar da, beraz dirua gastatuko dugu bertan. Jantzi desberdinak diseinatu beharko ditu, aurkezlearen eta platoon egongo direnen jantziak. Gutxi gora behera pertsonarekiko 100€ gastatuko ditugu, hiru pertsona gutxi gora behera. Beraz, 300€ gastatuko dugu jantzi bakoitzeko.

- **Aktoreak:**

Beharko dugun aktore bakarra aurkezlea da. Honek programari hasiera eta bukaera emango dio. Orduan hilero 2500€ ordainduko diogu.

- **Segurua eta finantza:**

Seguru bat edukitzea ezinbestekoa da edozer izatean, zerbait gertatzen bada seguru horrek dirua emango digulako. Adibidez, sute ba gertatzen bada, seguru horrek, lan egiteko beste toki bat emango digu (dirua). Bestalde, enpresak haien diru-beharrei aurre egiteko, ordainbideak eskuratu ditzakete, hau da, gastu handi bat egiterakoan, finantza bat edukiko dugu, eta dirua utziko digute. Segurua, Generaliti enpresan kontratatuko dugu 3050€ urtero. beraz, 254.17€ hilero. Eta hasierako finantza 20.000€koa izango da gutxi gora behera dena ordaindu ahal izateko.

- **Zergak eta eskubideak:**

Pertsona guztiek zergak ordaintzen dituzte gastu publikoari erantzuteko eta guk ere zergak ordaindu behar ditugu denok bezala. Bi zerga mota daude; zuzeneko zergak eta zeharkako zergak. Baina gure kasuan, zuzeneko zergak ordaindu beharko genituzke, enpresa bat delako. Beraz, gure zergak ordainduko ditugu eta horrela, egunerokoan hainbat eskubide izango ditugu.

Gure zergen bata bestekoa hilabetean 100€-koa izango da.